

## EDU GORDO ESKULTOREA

## «Biziten dodan errealidadea da nire obrearen mamia»

Alderdi asko daukaz Edu Gordo artista gernikarraren obra bildumeak. Guztien artean, baina, ilunena da kobazuloetan erakusten dauzan *okupazino*-ei jagokena.

Iratxe Astuy | GERNIKA-LUMO

Azpimarratzekoak diran hainbat behar eginda daukaz Edu Gordo artisteak. Horra hor, esate baterako, baserriarren omenez eginiko *Astelehenan Jai* eta Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena zala-eta egin eban *Hilarria* eskultureak. Horreez gain, baina, beste instalazio beharrak, erakusketa eta izenadun sari asko tartean daukaz Edu Gordok, bere ibilbide artistikoaren barruan.

Historiaurreko kontuez daukan interesak bultzatuta, bestalde, Paleolitiko sasoiko horma artearen ganeko tesinea idatzi eban, 1981ean. Horreen guztien ganetik, baina, iluntasunean be gordeten diran beharrak baditu Gordok. Mendizalea eta espeleologoa dan

ezkero, kobazuloak hartzen dauz bere sortze-behar batzuen erakusleku apropostzat.

■ **Artista baten obrea erakusteko ohikoa ez dan agertokia aukeratu dozu zure beharrearako.**

Erakusleku asko daukaz arteak. Artea berbearen esangurea bera be nahiko zabala da eta. Nik neuk, natureagaz daukadan hartu-emonagaitik edo, kobazuloetan aurkitu dot espazio aproposa. Izan be, kobazulo baten barruan egoteak transmititzen deustazan sentsazioak naroe horrelako beharrak egitera. Errealidadearen beste ikuspuntu bat erakutsi gura dot. Nire obrea ikusikeran, zer pentsau eragin gura deusat ikusleari.

■ **Kobazuloetan, baina, publiko gitxi izango dozu zure obrea ikusten.**

IRATXE ASTUY



Espeleologoek eurek askotan esaten deuste hori; kobazuloetan ipinita daukadazan beharrak han jarteko egin dodazala, beren beregi. Baina, kontua beste bat da. Lekua da niretzat inportanteena. Lekuak berak bultzatzen nau eta, behar jakin hori egitera. Natureak aukera

handiak eskaintzen deustaz artea egiteko.

■ **Horrelako zenbat instalazio eginda daukazuz?**

Instalazioak barik, *okupazinoak* deritxat nik horreei. Kobazuloetako berezkoak ez diran elementuak okupetan dodaz eta, lur azpiko espazio horreek. Hori argitu gura izan dot, beti. Nire *okupazinoak* Urdaibaiko hiru kobazulotan ikusi daitezke. Ereñoko Potoa kobazuloan ipini neban lehena. Eskegita dagozan zazpi harribolez osotuta dago. Han barruan geldidirik dagozanez, sentsazio polita emoten dabe harriok, kobazuloaren goiko lehiotik argia sartukeran. Barrukaldean egon ezker, beste ikuspegi bat erakusten deutse harri borobilek ikusleari.

■ **Eta beste 'okupazino' biak?**

Ez dot ezagutu arazoko bigarrena non dagoen; batez be, kobazuloeko hormak apurkorak diralako. Izan be, apurkotasun hori azpimarratu gura neban bertan erakusten dodan obregaz. Behar handia emon euskun Ades taldeko espeleologooi bera ipintea, arrastorik bako *okupazino*a egiteko nahiko gatx euki gendualako kobazulo horretan. Urdaibaiko artadiaren leku babestuan dago. Azkenengo *okupazino*a orain

## OKUPAZINOAK

«Instalazioak barik, 'okupazinoak' deritxat kobazuloetako beharrei»

## EZKUTUAN

«Gustukoa daukadan mendi bateko lur azpian gordeta daukat beste behar bat»

dala denpora gitxi amaitu dot. Ereño eta Nabarniz herrien artean dagoen Zazpilezeta kobazuloan ikusi daiteke.

■ **Harriakaz eginda hori be?**

Kasu honetan ispiluak erabili dodaz. Borobil bat marrazten dot kobazuloeko horman, baina borobil hori argiren bat jotean bakarrik ikusten da. Kobazuloa sartzen dan ikuslea leku jakin batean egon behar da borobila ikusteko. Azken batean, ikuslea obrearen beste zati bat da.

■ **Bere sortze beharra kobazuloetan gordeten dauen besterik ezagutzen dozu?**

Orain arte, ez daukat horren barririk.

■ **Ezkutuan gordeten dozu beste obra motarik baduzu?**

*Ekintzak* deritxat horreei. Askotan joaten nazen mendi batean daukat estruktura bat lurperatuta. Neuk baino ez dakit non dagoen ha. Bideo eta argazkitako irudiak dira behar horreen froga bakarria. Nik be ez dot Picassoren *Guernica* koadroa sekula be ikusi, baina zelakoa dan badakit.

## AGENDEA

## GERNIKA-LUMO

**Antzerkia:** *Kontenedore baten istorioak* tituludun antzezlan egingo dabe Maskarada taldeko aktoreek, gaur, Lizeo antzokian. Antzezbeharra 20:30ean hasiko da. Sarrereak 8 euroan salduko dabez, eta 6 euroan gazte txartela izan ezker.

## BERMEO

**Ipuin kontalaria:** Kandelen argipean titulupean kontauko dabez ipuinak, gaur, Joxe Miel Barandiaran liburutegian. Nagusientzako ipuin kontaketa saioa 20:00etan hasiko da.

## BUSTURIA

**Asto probak:** San Blas jaiak dirala eta, asto probak egingo dabez, zezeilean, Axpe auzoko probalekuan. Parte hartu gura dabenek izena emon behar dabe hilearen 26a baino lehen, Alkartasuna tabernan.



ESPELEOIMAGEN

**ISILTASUNA, ILUNTASUNA ETA ARGIEI ARTEKO JOLASA.** Edu Gordoren azken beharra, *Argia* tituluduna, hain zuzen be. Ikuslea obraren protagonista da.